


Eguberrietako egitaraua 2020-2021

KULTURAKO JARDUEREN AURRERAPENA 2021KO URTARRILA



**¡EGUBERRI
ETA 2021
URTE BERRI
ZORIOITSUAK!**



ANTOLATZAILEAK



Ayuntamiento
del Valle de Burgueta



Consejo de Valles
del Valle de Burgueta



Kultur Etxea

BABESLEAK



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Nahiz eta egoerak eguberri ezberdin batzuetara behartzen gaituen, Kultur Arloak pertsona guztiok une bereziaz gozatzeko aukera izatea du helburu.

Horretarako adin guztietako pertsonentzako eskaintzak landu ditugu, batez ere zuei irribarre bat ateratzeko asmoz.

Gozatuko duzuela espero dugu eta eguberria sorpresen garaia denez, adi egon udaleko webguneari eta gure Facebookari.

Zuentzako gordeta sorpresatxoren bat dugu!



SARREREN SALMENTA

Zenbakitutako sarreren salmenta: edukiera osasun eta prebentzio gaietan eskumena duten agintariek markatutakoa izango da. Auditorioan sartzen diren pertsona guztiok eserlekua okupatu behar dute (edukiera kontrolatzeko kontuan hartzen diren haurtxoak barne, indarrean dagoen segurtasun araudiaren arabera) eta ezin izango da edukiera hori gainditu. 2/1989 Foru Legea*.

Sarrerak, bere kasuan jarduera bakoitzean zehaztutako prezioan, horrela erosi ahalko dira:

ALDEZ AURRETIK: jardueraren astean bertan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara, Kultur Etxeko harrera mahaiari.

JARDUERAREN EGUNEAN: sarrerak geratzen baldin badira, funtzioen hasiera baino ordu erdi bat lehenago.

Aurretik erositako sarreren itzulketarik ez da onartuko.

ADI!

**Gehienez 4 sarrera pertsonako haur eta familientzako ikuskizuneta
Gehienez 2 sarrera gazte eta helduentzako ikuskizunetarako**

**PROGRAMATUTAKO JARDUERA ETA IKUSKIZUNEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGORAKO,
HONAKO TELEFONORA DEITU DEZAKEZUE 948 - 29 14 89**



Eguzki plaza- 31192 Mutiloa (Nafarroa) - Tel. (leihatila): 948 29 14 89

E-posta: cultura@aranguren.es

Jarrai gaitzazu: [@casadeculturaarangurenkulturetxea](https://www.casadeculturaarangurenkulturetxea.es)

ANTZERKIA → EUSKARAZ

“Olentzeroren zaku magikoa” - Zirtaka Taldea



Olentzerok bere zaku magikoa galdu du. Horren ondorioz, gabonetako oparien banaketa zaildu egingo da. Olentzero eta Mari Domingi izango dira abentura honen protagonistak. Basoetan zehar hainbat pertsonaiekin topo egingen dute: argitxo, astotxo, haritza, basajauna eta sorgina pirulina gaiztoa. Olentzerok lotuko ote du zaku magikoa berreskuratzea?

▷ **Abenduak 23, asteazkena 17:00etan eta 18:30ean**
▷ **3 URTETIK AURRERAKO HAURRENTZAKO GOMENDATUA**
▷ **SARRERA 3 €**
↳ **Iraupena: 50 minutu**

BAKARRIZKETAK

“¡Por comentarlo!” Oscar Terolekin



Oscar Terolek gaurkotasunaren errepasoa egingo du umorez, eta ikusle konplize batekin benetan gertatzen ari dena kontatzea nahi du. Adiskidetu egiten gaitu umore horrek, eta denok ditugun sentazio txiki eta aitorgaitzetatik askatzen gaitu. Begirada ironikoa, batzuetan urratzailea, arima laztantzen du, estresa askatzen du eta adimena erlaxatzen du.

▷ **Abenduak 26 eta 27 (larunbata eta igandea) 19:00etan**
▷ **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**
▷ **SARRERA 6 €**
↳ **Iraupena: 90 minutu**





FAMILIA ZINEMA → EGUBERRIETAN

IKUSLE GUZTIENTZAT / SARRERA: 2 €



ABENDUAK 28, ASTELEHENA, 17:00ETAN

ABOMINABLE

Yi beste nerabe bat gehiago da Shanghaiko hiri handian. Halako batean, yeti gazte bat aurkitu du bere eraikineko zabaltzan. Jin eta Peng bere lagun burutsuekin batera, ihes egiten laguntzea erabaki du Yik, eta laurak abentura epiko batean murgilduko dira.

Iraupena: 97 minutu.



ABENDUAK 30 ASTEAZKENA, 17:00ETAN

ONWARD

Hiri-inguruko fantasiako mundu batean girotuta, bi anai elfo nerabek, Ian eta Barley Lightfoot, abentura bati ekin diote. Abentura horretan, jakin nahi dute aitarekin azken egun bat igarotzeko aukera emango lieken magiaren bat ote dagoen munduan. Aita oso txikiak zirela hil zen eta ez baitute gogoratzen.

Iraupena: 102 minutu.



URTARRILAK 4 ASTELEHENA, 17:00ETAN

TOY STORY 4

Woodyk beti izan du argi zein den bere egitekoa munduan eta bere lehentasuna zein den: jabea zaintzea, dela Andy, dela Bonnie. Baina Bonniek Forky izeneko fabrikazio propioko jostailu berri bat gehitu du bere gelan, eta abentura berri bat hasi du.

Iraupena: 100 minutu

TXONTXONGILOAK

"Cuentos de Maricastaña" - Titiriteros de Binefar"



FETEN 2014 Txotxongilo ikuskizun onenaren saria.

Publikoaren saria Los Yébenes-eko I. Txotxongilo Jaialdiko obra onenari.

Marikastaña eta Bruno ipuinak jaiotzen diren lekutik iristen dira. Ikusleei begietara begiratzen diete, eta pertsonaiak txori-saldoen gisara etortzen dira, beren eskuetatik jatera. Katuak euren kapelaren barruan lo egiten al du? Ikusi nahi al duzue nola eusten dion pailazo-orekari batek bere sudurrean barra astun bati? Dena da posible, Maricastaña eta Bruno haurren begirada gardenei jarraika iristen direnean, are gehiago bakarrik ez baldin badaude.

▷ Urtarrilak 3, igandea
17:00etan eta 18:30ean

▷ 2 URTETIK AUERRERAKO
HAURRENTZAKO GOMENDA-
TUTAKO JARDUERAS

▷ SARRERA 3 €

↳ Iraupena: 55 minutu

ANTZERKIA ETA BURBUILAK

"Mari Pompas" - Jose Luis Lago produkzioak



Mari Pompas, superponpilikoki... INPERFEKTUA!!! Horrela definitzen da, bere birramonak (Mary Poppins) egiten zuen bezala, eskutik hartuko gaituen eta abenturaz beteriko eta irudimenaren bidetik baino iristen ez den parke magiko batera eramango gaituen pertsonaia maitagarri hau. Bere birramonarengandik jaso ditu izena, xelebrekeria, fantasiarekin eta magiarekin duen lotura eta barrea eta umore ona eragiteko gaitasuna. Bere akatsez barre egiten du eta bere talentuez harro dago. Batez ere, jendearekin gozatzeko aukera ematen duen batez: xaboi-burbuilak sortzeko dohaina.

▷ Urtarrilak 17, igandea
12:00etan 18:00etan

▷ 4 URTETIK AUERRERAKO
HAURRENTZAKO GOMENDA-
TUTAKO JARDUERA

▷ SARRERA 3 €

↳ Iraupena: 50 minutu





KOMEDIA

“Mentiras Cotidianas” - Producciones Maestras



- ▷ Urtarrilak 24, igandea 19:00etan
- ▷ GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA
- ▷ SARRERA 6 €
- ↳ Iraupena: 70 minutu

Denok esaten ditugu gezurrak, edo... ez? Eguneroko gezurrak dira, egunerokotasuna errazten dutenak, ondoriorik gabeko gezurrak, edo... ez? Eremu horretan mugitzen diren hiru pertsona heldu dira, arrakastatsuak. Hitz egiten eta edaten dute, edan eta hitz egin, dakitenari buruz, sentitzen eta sufrizten dutenari buruz. Ironia, sarkasmoa, gezurrak, eta egi bat edo bestek osatzen dute beti bere baitan galdurik dagoen Lucasek sortutako mikrokosmos hori. Pasioak larru azalean eta gezurra ahoan dituela, komedia dibertigarri eta garratz bat da, bizitza osatu gabe batek eragin ditzakeen beldurrak eta frustrazioak azaltzen dituena.



TXONTXONGILOAK

“El latido del bosque” - Mikel Hernández

Sukaldeak istorioz beteta daude. Sukaldeko tresnak armairu zaharretan pilatzen dira. Egur-labeek gela berotzen dute neguko egun hotzetan. Iratxoa labe horietako batetik aterata da. Oso leku urrunetik datorrela dio, basoak errauts bihurtzen ari diren lekutik, alegia. Gainera, sua etengabe hurbiltzen ari da soroetara. Laster herriak ere arrisku larrian egongo dira. Arazo horien konponbidea gure esku dago.

- ▷ Urtarrilak 31, igandea 17:00etan (euskaraz) 18:30ean (gaztelaniaz)
- ▷ 3 URTEK AURRERAKO HAURRENTZAKO GOMENDATUTAKO JARDUERA
- ▷ SARRERA 3 €
- ↳ Iraupena: 50 minutu

ARGAZKI ERAKUSKETA

“Nire lekurik gogokoena”



IZENBURUA:
“Calma en Ezkoriz”
EGILEA:
Iñaki Arrondo Mateo

- ▷ Urtarrilak 11tik otsailak 5era
- ▷ BISITA ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
- ▷ DOAKO SARRERA

Aranguren Ibarreko **Ingurumenari buruzko Argazki Lehiaketan** (2020) aurkeztutako irudirik onenak. Ibarreko natur ondarea ezagutzera gonbidatzen gaituzte. Aurtengo gaia **“Nire lekurik gogokoena”** izan da.

GURE KONPROMISOAREKIN JARRAITZEN DUGU



LEKU SEGURUA ESKAINTZEKO KONPROMISOA HARTU DUGU:

- ⇒ Eskuak garbitzeko gela sarreran
- ⇒ Ibilbide eta distantzia markatuak
- ⇒ Araudiarekin bat datozen edukiera murriztuak
- ⇒ Besaulki-patioaren zenbakitze berria, aurrez esleitutako eserlekuekin
- ⇒ Funtzioen arteko desinfekzioa eta aireztatena

ETA ZUK, KONPROMISOA HARTUKO DUZU?

- ⇒ Une bakoitzean ezartzen diren arauak errespetatzeko
- ⇒ Jardueretan zehar maskara jarrita eramateko
- ⇒ Auditorioan ez jateko edo edateko
- ⇒ Puntuala izateko, mugikorra isilarazteko eta argazki edo grabazioak ez egiteko
- ⇒ Burua ireki eta gozatzeko
- ⇒ Zure ekarpen eta iradokizun guztiak guri helarazteko





ZAHARBERRITZE ETA PINTURA IKASTAROAK HELDUENTZAT

MATRIKULA

- **012** edo **948 012 012** telefonoan, **8:00etatik 19:00etara**
- Urtarrilak 20 eta 21, erroldatuak
- Urtarrilak 22, erroldatu gabeak
- Plazak izen emateko hurrenkeraren arabera esleituko dira.
- Matrikularen ordainketa deian bertan egingo da eta txartelaren bidez.



ZAHARBERRITZEA

(49 ordu. Lauhilekoa)

Erroldatuak: 82 €

Erroldatu gabeak: 164 €

ORDUTEGIA:

1 Taldea: astelehenak 09:30-13:00

2 Taldea: astelehenak 16:30-20:00

3 Taldea: ostiralak 09:30-13:00

4 Taldea: ostiralak 16:30-20:00

Jardueraren hasiera: otsaileko 1. astea.

Lekua: Idoi plazako etxabeak (Mutiloa).



HELDUENTZAKO PINTURA

(60 ordu. Lauhilekoa)

Erroldatuak: 113,5 €

Erroldatu gabeak: 227€

ORDUTEGIA:

1 Taldea: astearte eta ostegunak 10:00-12:00

2 Taldea: astearte eta ostegunak 16:00-18:00

3 Taldea: astearte eta ostegunak 18:00-20:00

Jardueraren hasiera: otsaileko 1. astea.

Lekua: Ibaialdeko lokalak (Mutiloa).

MUGATUTAKO PLAZAK

Aranguren Ibarrean erroldatutako 65 urtetik gorako pertsonek %50eko beherapena izango dute matrikulan.

